



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 8a

76. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea. Osasun Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da intsulina-mendeko 2 motako diabetikoen-tzako glukosa-sentsoreak finantza ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legean jaso dezan 2021a bukatu aitzin jatorri berriztagarriko sorkuntza elektrikoko plantak paratzeke foru mapa taxutzeko konpromisoa. María Elena Llorente Trujillo andreak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ikastetxeei utz diezaien pandemiaren aurreko eskola-antolaketa eta -ordutegia berreskuratzen. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresen I+G+b finantzazera bideratutako deialdiez gain foru erkidegoko zentro teknologikoen oinarritzko ikerkuntza egitera bideratutako oinarritzko deialdiak egin ditzan. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen da neurri egokiak har ditzan Tafallan eta Zangoza-Pirinioak eremuan D ereduko Batxilergoa bermatzeko. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako erakundeak eta gizartea premiatzen dira Kolonbiako protesta baketsuen aurkako errepresioa gaitzets ditzaten. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (13. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hilekoaren pobreziari buruzko azterlan espezifikoa egin dezan. Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezkerreko-Ezkerreko talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (15. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa. II. eranskina aldatzea (17. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea.

OSASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Osasun Batzordeak Nafarroarako jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea arautzen duen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena. Proposamen hori 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

IRIZPENA

Osasun Batzordeak 2021eko ekainaren 1ean eta 2an egindako bileran onetsia.

Foru lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea

HITZAURREA

Jaioberrien baheketarako programek modua ematen dute hemopatiak, immunoeskasiak eta gaixotasun endokrino-metabolikoen diagnostiko goiztiarra egin eta ukituriko pertsonengan tratamendu goiztiarra ezartzeko, halatan modua emanik haurren bizi-kalitatea nabarmen hobetzeko. Kasu askotan, programa horiei esker haur horiek normaltasun osoa lortzen dute. Horrenbestez, programa horien ezarpena neurri eraginkorra da haur-populazioan desgaitasun fisikoaren eta psikoaren intzidentzia eta hilkortasun saihegarria murrizteko, hainbat gaixotasun arraroren bilakera aldatzea lortzen denez gero. Hori dela-eta, mundu osoko herrialde eta erregio askok jaioberrien baheketarako populazio-programak ezarri

dituzte, gero eta patologia gehiagoren detekzioa biltzen dutenak.

Proba egiteko, jaioberriaren orpotik odol-tanta bat hartzen da jaio ondotik 48 ordu igaro direnengan; horregatik, "orpoko proba" gisa ezagutua da.

Gure herrialdean, Lurraldearteko Kontseiluaren osoko bilkurak 2013an onetsi zuen Osasun Sistema Nazionaleko laguntza-zerbitzuen oinarritzko zorro komunean sartzea jaioberrien baheketarako programa, zazpi patologiarik detekzioa biltzen duena, gehitu egin baitzitzaizkion fibrosi kistikoaren detekzioa, kate ertaineko azil-CoA deshidrogenasaren eskasiarena, kate luzeko 3- hidroxiazil-CoA deshidrogenasaren eskasiarena, I. motako azidemia glutarikoarena eta zelula faltziformeen anemiarena duela 40 urte baino gehiago ezarritako baheketa-programari, zeinak xede baitzuen sortzetiko hipotiroidismoaren eta fenilzetonuriaren detekzio goiztiarra.

Erabaki hori gauzatu zen urriaren 31ko SSI/2065/2014 Aginduan, zeinak aldatu egin baitzituen Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunak zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I, II eta III. eranskinak. Aginduak Osasun Sistema Nazionaleko laguntza-zerbitzuen oinarritzko zorro komuna zehazten eta eguneratzen du; besteak beste, gaixotasun horien baheketari dagokionez, eta ezartzen ditu Osasun Sistema Nazionaleko laguntza-zerbitzuen oinarritzko zorro komuneko den jaioberrien gaixotasun endokrino-metabolikoen baheketa-programan sarturik egon behar duten gutxieneko zazpi gaixotasunak. Programa horrek 2015eko azaroaren 1etik aurrera behar zuen ezarrita egon nazio-lurralde osoan.

Tandemeko masa-espektrometriaren oinarrituriko analisi-teknikak baheketa-laboregietan erabiltzeak, duela hogeita hamar urtetik, aldaketa nabarmenak ekarri ditu pixkanaka, odol-tanta

baten analisiaren bitartez posible egiten baitu berrogei eritasun baino gehiago aldi berean bahezea. "Baheketa areagotua" deritzona da.

RUSP (Recommended Uniform Screening Panel) of Secretary of the Department of Health and Human Services (HHS) delakoak gomendioak egin ditu ebidentzia zientifikoaren mailan oinarriturik jaso daitezkeen patologia jaioberrien baheketan, gomendio horietan sarturik oinarritzko 35 eritasunen eta bigarren mailako 26ren baheketa.

Baheketa areagotuaren alde metatu den ebidentziak eragin du Mendebaldeko Europako herrialde ia guztietan eritasun-kopuru handi bat jaso izana nork bere jaioberrien baheketarako programan. Bereziki nabarmentzen dira Herbehereak eta eskandinaviar herrialdeak.

Beste urrats bat Italiak egin zuen 2016an, legez onetsirik jaioberrien baheketa programa homogeneizatu eta berrogei eritasunetaraino areagotu baitzuen, herrialdean jaiotako haur guztien eskubide gisa arauturik.

Espanian, nahiz eta gutxieneko zorroak zazpi eritasunetarako baheketa baizik ezartzen ez duen, jaioberrien baheketarako programek aldakortasun handia erakusten dute autonomia erkidegotik autonomia erkidegora.

Autonomia erkidego guztiek jasotzen dute beren zorro osagarrian, zorro amankomunaz harago, hiperfenilalaninemiaren baheketa, nahiz eta ez den berariak ebaluatua izan osasun-teknologiaren ebaluaziorako txostenetan edo kostu-eraginkortasun txostenetan. Izan ere, aurkikuntza akzidental gisa detekta daiteke fenilzetonuriaren baheketa egiten denean, zeina jasota baitago Osasun Sistema Nazionaleko jaioberrien baheketarako zorro komunean.

Asturias, Kanariak, Kantabria, Valentziako Erkidegoa eta Balear Uharteak zortzi eritasun bakarrik ari dira bahetzen. Herrialdeko atzeratuena dira, Gaztela eta Leon eta Nafarroarekin batera, zeinak bederatzi patologia ari baitira bahetzen, nahiz eta 2021eko otsailaren 15ean Nafarroak bi patologia gehitu dituen: astigar-jarabearen usaineko gerneruaren gaixotasuna eta homozistinuria.

Gainerako autonomia erkidegoak patologia gehiago jasotzen joan dira beren zorroetan, jaioberrien baheketarako zerbitzu-ematean. Erreferente gisa nabarmentzen dira Murtzia, Galizia, Andaluzia eta Aragoiko autonomia erkidegoak eta Ceuta eta Melillako hiri autonomoak, hogeita hamar patologia baino gehiago jasotzen baitituzte detekzio goiztiarreko programan.

Presakoa da, horrenbestez, konponbidea ematea egoera honi, Nafarroako haurrak desparekotasun-egoera argi batean baitaude Espainiako beste eskualde batzuetan jaiotakoen aldean. Jaioberrien bahetze areagotua ezartzeak ekarriko luke, kalkuluen arabera, urtero hamabi jaioberri ingururi bestelakoan oharkabean pasako liratekeen patologia detektatzea.

Halaber, arauak balio izan behar du Nafarroa etorkizunean autonomia erkidegoen aitzindaritzan jartzeko, hemopatia, immunoeskasia eta eritasun endokrino-metaboliko desberdinen detekzio goiztiarrari dagokionez, halatan haurren beste desgaitasun- eta morbiditate-egoera saihegarriak prebenitu ahal izateko, betiere ebidentzia zientifiko ari hartuta, baina ebidentzia hori eguneratzeko sistema azkar baten laguntzaz, eta emaitzen ebaluazioa bitzita errealeko datuekin eta sareko lanaren bidez eginik, ebidentzia berria sortzen laguntzeko, eta, halaber gaixoen ikuspegia kontuan harturik prestazioen definizioan, haien gauzatzean eta emaitzen ebaluazioan, arazoarekin ukiturik dauden Nafarroako familien elkarrean bitartez.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeko 13/1982 Lege Organikoko 53. artikuluan xedatuari jarraikiz, eta Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean ezarritakoari heldurik, zeina nafar herritarrek osasun-zerbitzuetarako duten eskubideei dagokienez aldatua eta osatua izan baitzen Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharreri buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen bidez, Nafarroak eskumena du Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunaren Zorroan jasorik dagoen osasun-laguntza areagotzeko.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da haurren desgaitasun eta morbiditate saihegarrien prebentzioa bermatzea, modu goiztiarrean detektatuz eta tratatuz eritasun metabolikoak, endokrinoak, hemopatiak eta immunoeskasia hereditarioak, jaioberrien bahetze areagotuko populazio-programa baten bitartez.

2. artikulua. Jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programan jasotako patologia.

a) Lege hau aldarrikatzeko egunean jasota dauden patologia: sortzetiko hipotiroidismoa, fenilzetonuria, fibrosi kistikoa, kate ertaineko azil-CoA deshidrogenasaren eskasia, kate luzeko 3-hidroxi-azil-CoA deshidrogenasaren eskasia, I. motako azidemia glutarikoak, zelula faltziformeen anemia, biotinidasa defizita, hiperfenilalaninemiak,

astigar-jarabearen usaineko gormuaren gaixotasuna eta homozistinuria.

b) Honako patologia hauek:

I, II eta III motetako tirosinemiak

I eta II motetako zitruulinemiak

Azidemia propionikoa

Azidemia metilmalonikoa

Zetotiolasaren defizita

Mitokondrietako proteina hirufuntziodunaren defizita

Aziduria 3-hidroxi 3-metilglutarikoa

Metilkrotonil 3-CoA carboxilasaren eskasia

Aziduria 3-metilglutakonikoa

Isobutiril glizininuria

Karnitina palmitoil tranfenasa Ien eskasia

Kate oso luzeko Azil-CoA deshidrogenasaren eskasia

Kate laburreko Azil-CoA deshidrogenasaren eskasia

Azil-CoA deshidrogenasaren eskasia anizkoi-tza

GALT galaktosemia

GALK galaktosemia

Immunoeskasia konbinatuak

X kromosomari loturiko adrenoleukodistrofia

Pompe-ren sindromea

1. motako mukopolisakaridosia

Azidemia isobalerikoa

c) Une bakoitzean erantsi ahal direnak, Osasuneko kontseilariaren foru agindu bitartez, foru lege honen 5. artikuluan arauturiko Adituen Batzorde Diziplinanzitunak ezarritako gomendioei jarraikiz.

3. artikulua. Jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programa eskuratzeko eskubidea.

Jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programa eskubide bezala bermatuko zaie Nafarroan jaiotako haur guztiei, 2. artikuluan xedatzen duenaren arabera, Adituen Batzorde Diziplinanzitunak bere gomendioak egin eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian.

4. artikulua. Jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programaren edukia.

Jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programak barne hartuko ditu detektaturiko pato-

logien diagnostiko-berrespena, tratamendua eta ondoko jarraipena.

2. artikuluan araututako jaioberrien baheketa areagotura-ko probak pazienteei egin ondoren emaitza positiboa ateratzen bada, sekuentziazio genetikoa eta/edo genomikoa azterketa egina da, oinarritzko patologien mutazio genetikoa detektatu ahal izateko.

5. artikulua. Adituen Batzorde Diziplinanzituna.

1. Foru dekretu bidez sortuko da Jaioberrien Baheketa Areagotura-ko Adituen Batzorde Diziplinanzituna, eta haren osiera zehaztuko da. Gutxienez sei kidek eta gehienez bederatzik osatuko dute batzorde hori.

Adituen Batzorde Diziplinanzituneko kide izateko proposatzen diren adituek parte hartu beharko dute Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan, Nafarroako Ospitaleguneko Pediatria, Genetika, Barne Medikuntza, Endokrino-Nutrizio eta Immunologia zerbitzuetan eta, gehienez ere, patologia horiekin zerikusia duten pazienteen elkarteetako bi ordezkari, betiere batzorde horretako kideek hala onartzen badute.

2. Batzorde horrek gutxienez ere urtean bi bider, urte bakoitzeko lehen eta hirugarren hiruhilekoetan, eginen ditu bilerak eta ebidentzia zientifikoaren balorazioa, xede duela jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programan patologiak sartzeko gomendioak egitea, zeinak lotesleak izan baitira.

3. Batzordeak bere kideen gehiengoz erabakiko ditu bere gomendioak, zeinak Osasuneko kontseilariari bidaliko baitzaizkio, jasoak izan daitezten jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programa areagotzeko foru agindu batean.

Foru lege honek zehazten ez duen orotan, Adituen Batzorde Diziplinanzitunaren funtzionamendua arautuko da jarraiturik martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoak, kide anitzeko organoek dagokienez ezarritakoari.

Artikulu berria. Eritasun Arraroen-Metabolopatien Unitatea.

Foru dekretu bidez, Nafarroako Ospitaleguneko Eritasun Arraroen Unitatea sortuko da. Honako zerbitzu hauek osatuko dute: Genetika, Pediatria eta Barne Medikuntza, Endokrino-Nutrizioa eta Immunologia.

Eritasun Arraroen Unibatearen eginkizun nagusia izanen da adin pediatrikoko gaixoak artatzea.

Nolanahi ere, zerbitzu horietan tratatutako pazienteak helduaroan baloratu beharko dira, Nafarroako Ospitaleguneko Barne Medikuntzako Zerbitzuak trantsizio-konsulta minoritario bat eginez.

Lehen xedapen gehigarria. Datu-informaziorako sistema.

Nafarroako Gobernuak halako datu-informaziorako sistema bat ezarriko du non horien anonimizazioa ahalbidetuko duen, populazio-emaizak eta programaren eraginkortasuna Bizitza Errealeko Datu konparagarriekin ebaluatu eta ikertzeko, eta horiek beste osasun-sistema erregional eta internazional batzuekin partekatu ahal izateko.

Bigarren xedapen gehigarria. Jaioberrien baheketa areagoturako programaren ebaluazioa.

Nafarroako Gobernuak gutxienez ere urtean behin egingen du programaren ebaluazioa. Horren berri Nafarroako Parlamentuari emanen dio urte bakoitzeko urtarrilean eginiko aurkezpen batean, eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren urteko oroitidazkian argitaratuko da, herritar guztien eskueran ipinita.

Lehen xedapen iragankorra. Patologiak jaioberrien baheketa areagoturako populazio-programan sartuak izateko epeak.

Ezertan eragotzi gabe 3. artikuluan xedatutakoa, Nafarroako jaioberrien baheketa areagoturako populazio-programan beranduenik ere 2022ko urtarrilean sartuko dira 2.2. a) artikulua zehazten dituen patologiak.

Bigarren xedapen iragankorra. Adituen Batzorde Diziplinaztuna abian jartzea.

Foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean eratuko da 5. artikuluan arauturiko Adituen Batzorde Diziplinaztuna.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan ezarritakoari kontra egiten dioten lege- edo erregelamendu-xedapenak.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduzko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege honetan xedatuaren erregelamenduzko garapena egiteko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da intsulina-mendeko 2 motako diabetikoentzako glukosa-sentsoreak finantza ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2021eko ekainaren 1ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da intsulina-mendeko 2 motako diabetikoentzako glukosa-sentsoreak finantza ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du gehienez ere hiru hilabeteko epean finantza ditzan flash sentsoreak 2 motako diabetesa duten pertsona intsulinizatuen eta intsulina azkarra behar dutenen kasuan”.

Iruñean, 2021eko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legean jaso dezan 2021a bukatu aitzin jatorri berriztagarriko sorkuntza elektrikoko plantak paratzeko foru mapa taxutzeko konpromisoa.

MARÍA ELENA LLORENTE TRUJILLO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Elena Llorente Trujillo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legean jaso dezan 2021a bukatu aitzin jatorri berriztagarriko sorkuntza elektrikoko plantak paratzeko foru mapa taxutzeko konpromisoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Elena Llorente Trujillo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, batzordean eztabaidatzeko:

Energia berriztagarrien sektoreak beste edozeinek baino gehiago pairatu ditu Erreniegaren gailur-lerroan orain dela ia hogeita hamar urte lehendabiziko haize-sorgailuak paratu zirenean existitzen ez zen erregulazioaren gorabeherak, eta horri buruzko politiketara egokitu behar izan du. Hasiera batean, Estatuaren protekzionismo handi baten aldeko apustua egin zen horien garapena errazte aldera, haize-sorgailuak ezartzea sustatzeko prima-politikak baliatuta. Horren ondorioz, hazkunde nolabait kontrolik gabea gertatu zen, batez ere eskala txikiko energia fotovoltaiko-

aren sektorean, “eguzki-baratzeak” izenekoak ugaldtu zirenean, milaka aurreztaile pribatu txiki animatu baitzen horretan inbertitzera, EAOk ustez bermatutako errentagarritasunak erakarrita; 2008ko krisiaren ostean, ordea, ezinezkoa gertatu zen horri eustea. Haize-energiaren sektoreak, zeina produkzio sariztatuko politika horien babesean ere sortu baitzen, eguzki-parkeak ugartzearekin batera mantsotu zuen bere hedatze-prozesua, ia-ia egitatezko moratoria bat pairatzeraino, arrakasta industrialeko lehen hamarkada baten ostean. Hasierako arrakasta horiek izan ziren gure erkidegoan bermatu zutenak energia berriztagarrietan ziharduen industria-sektorearen garapena, Nafarroa erdigunean jarri duena Espainia eta Europa mailan sektoreko industriei dagokienez, CENER-Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala orain dela 20 urte baino gehiago hemen paratzeak berretsi zuenez.

Bultzada eta babesa emandako hasierako urte horietatik igaro ginen, errentagarri izateko diru-kutxa publiko murriztuak luzaz gainditzen zituzten proiektuen eskaintza neurrigabearen eta krisiaren kariatz, energia elektriko berriztagarriarendako primak pixkanaka kentzeko legegintza-aro batera eta sektorearen nahitaezko birdoitze batera. Sektoreak, halere, merkatuko prezioaren araberrako errentagarritasuna aurkitu zuen azkenean, eta horrek aparteko bultzada eman zion sektoreari gure herrian.

Aro berri horri –jatorri berriztagarriko sorkuntza elektrikoako proiektuak nabarmen haztea ekarri zuen–, bultzada handia eman dio Europar Batasunak iragarri izanak azkartu egiten direla deskarbonizaziorako epeak, COVID-19aren krisitik irteteko Next Generation funtsek ekarriko duten bultzada ekonomikoa aprobetxatuta.

Gauzak horrela, enpresak eta administrazioak eskuak lotuta daude, hala Espainian nola autonomia erkidegoetan badirelako era guztietako arauak izugarri eragozten dutenak segurtasun juridikoa, bai beren inbertsioak –nola ez– garatu nahi dituzten enpresena, bai onespina jaso nahi duten proiektu ugariak izapidetu behar dituzten funtzionarioena. Herritarrarengandik hurbilen dagoen administrazioak –udal administrazioak–, zeinak esateko gutxi baitauka espediente horiek garatzen dituzten baimenei eta txostenei buruz, bere bizilagunei bermatu behar die kasuko udal-mugartean paratu nahi diren proiektuek kalte baino onura gehiago ekarriko dituztela herri eta hiri horiendako.

Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea izapidetzean aukera paregabea daukagu –honezkero izapidetzen egon behar ko litzateke legebiltzar honetan–, Gobernuak nahiz hemen ordezkaturta dauden alderdi politikoei aurkezten dituzten legeak izapidetuz, Parlamentu honek konpondu beharreko legegintzargitasunaren premiari begira. Lege horretan konpromiso argia hartu behar dugu, prozesuan parte hartzen duten eragile guztientzako segurtasun juridikoa ekarriko duen oinarritzko araua izan dadin. Eta hemen denok jada har dezakegun lehenbiziko konpromisoa da lege horrek lurzorua ren erabileren foru-mapa bat jasotzea, Nafarroa osorako zehaztasun handiagorekin ezarriko duena zer eremutan izanen den debeku proiektu zehatz batzuk planteatzea (beren agronomia-, paisaia- nahiz kultura-balio handiagatik), zer eremutan planteatzen ahal diren muga jakin batzuekin, eta zer eremutan ahal izanen diren ezarri proiektu horiek berez dituzten muga generikoekin.

Horregatik guztiagatik, Navarra Sumak honako erabaki proposamen hau aurkezten du, eztabaidatu eta onesteko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Parlamentura bidali beharreko Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legean jaso dezan 2021a bukatu aitzin jatorri berriztagarriko sorkuntza elektrikoako plantak paratzeko foru-mapa taxutzeko konpromisoa. Legean argi eta garbi zehaztuko da zer eremu diren:

- Ez-gai.
- Ingurumenaren eta lurraldearen ikuspuntutik mugak dauzkatenak.
- Askeak edo ingurumen aldetiko muga gutxiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du inplikaturako eragileekiko lan-batzorde bat era dezan berehala mapa hori taxutzeko. Batzordean, Nafarroako Gobernuako Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko teknikariek batera, toki entitateen askotariko ordezkari-tza bat, talde parlamentarioen ordezkariak, nekazaritzako elkartearen ordezkariak eta sektoreko enpresen ordezkariak egonen dira.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: Elena Llorente Trujillo

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ikastetxeei utz diezaien pandemiaren aurreko eskola-antolaketa eta -ordutegia berreskuratzen.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako ikastetxeei utz diezaien pandemiaren aurreko eskola-antolaketa eta -ordutegia berreskuratzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Maiatzaren 20an, Hezkuntzako kontseilariak iragarri zuen heldu den ikasturtearen hasieran (2021-2022) derrigorrezkoa izanen dela eskolaldi jarraitua Nafarroako Foru Komunitate ikastetxe publiko eta itundu guztietan.

Kontseilariak azaldu zuenez, erabaki hori hartu da, hezkuntza-erkidegoa osatzen duten guztien segurtasuna eta osasuna bermatzeaz gain, ikasle guztiei arreta presentziala ziurtatzeko heldu den ikasturtean zehar.

Erabaki hori –eskolaldia jarraitua izatekoa– ikasturte honetarako hartu zen 2020ko abuztuaren amaiera aldean, ikasturtea hasi baino astebe-te eskas lehenago. Neurri hori hartzeko arrazoi nagusia izan zen ikastetxeetako sarrera-irteera kopurua murriztea, COVID-19a kutsatzeko arriskua murrizteko bidenabar.

Errealitateak erakutsi digu konfinatuta egon diren ikasleen kopurua autonomia erkidego gehie-

netan baino askoz ere handiagoa izan dela 2020-2021 ikasturte honetan; horietako askok, izan ere, bestelako eredu batzuk hautatu zituzten eskola-antolamenduari begira: bikoizketak ordeztu espazioetan, txandak ezartzea edo txandakako presentzia.

Une honetan, pandemian bizitzen ikasturte bat eta gehiago eman ondoren, frogatuta dago eskolaldia ez dela izan pandemiaren kudeaketan eragin positiborik edo negatiborik izan duen faktore bat; izan ere, goiz eta arratsaldeko ordutegia izan duten beste autonomia erkidego batzuek konfinamendu-datu askoz ere txikiagoak izan dituzte.

Hortaz, azkarregi hartu da Nafarroan eskolaldi jarraitua mantentzeko erabakia, zeren aurreko ikasturtean ikasturtearen hasiera-hasieran hartu baitzen, eta irailean eskolak goizez bakarrik eman ohi direnez, arazo handirik gabe antolatu ahal izan ziren zerbitzu osagarriak, garraioa eta jantokia.

Nabarmendu beharra dago, halaber, osasun-krisiaren bilakaerari buruzko aurreikuspenei, txertaketan izaten ari den aurrerabideari edo kontrol-neurriak aplikatzeko ezagutza areagotu izanari erreparatuta, aurreko ikasturtearen hasierako egoera baino askoz ere egoera hobea izanen bide dugula aurten, halako moduan non, neurria eragingarria izan dela frogatu izan balitz ere, ez litzatekeen beharrezkoa izango orain.

Bestalde, erabaki horrek sektoreren bat ukitzen baldin badu, sektore hori nafar familiak dira. Familiak ahalegin eskerga egin dute aurtengo ikasturtean beren lan-eginkizunak seme-alaben eskolaldira egokitzeke, eta erabaki hau hartu denean ez dira familia horiek aintzat hartu.

Familia horiek pandemia baino lehen zeukaten lan-egoeraren antzekoa hasi dira izaten orain; hortaz, desagertu egin dira alarma-egoerak beren ordutegiei begira ematen zizkien erraztasunak. Hori dela-eta, gure erkidegoko guraso-elkarte guztiek eskatu dute erabaki horretan atzera egitea.

Gure ustez, atzera-egite horrek ez du zertan arazorik sortu; izan ere, 2021eko maiatzaren 6an argitaratu zen 153/2021 Ebazpena, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, jarraibideak ematen dituena 2021-2022 ikasturteko eskola-egutegia

eta ordutegi orokorra prestatzeko Nafarroako ikastetxeetan, 2. artikuluan ezartzen duena Haur eta Lehen Hezkuntzako ordutegia goizeko lau saiotan eta arratsaldeko bi saiotan banatuko dela.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako ikastetxe guztiei utz diezaien, Hezkuntzako

zuzendari nagusiaren maiatzaren 6ko 153/2021 Ebazpenaren arabera, pandemiaren aurreko eskola-antolamendua eta -ordutegia berreskuratzen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresen I+G+b finantzatzera bideratutako deialdiez gain foru erkidegoko zentro teknologikoek oinarritzko ikerkuntza egitera bideratutako oinarritzko deialdiak egin ditzan.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enpresen I+G+b finantzatzera bideratutako deialdiez gain foru erkidegoko zentro teknologikoek oinarritzko ikerkuntza egitera bideratutako oinarritzko deialdiak egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zientziaren eta berrikuntzaren funtsezko helburu dira ezagutzaren mugan aurrera egitea eta ekonomien lehiakortasuna sustatzea. Aurrekaririk ez duen osasun-krisialdi honetan agerikoa da, are gehiago, berrikuntza eta zientzia funtsezkoak iza-

nen direla gaur egungo gizarte-erronka handiei aurre egiteko, eta, hala, ikerketa-jarduera arazo sozial larrien konponketara bideratu da. Beraz, hori aintzat hartuta, beharrezkoa izanen da zientziarako eta berrikuntzarako estrategia eta politika berriak zehaztea bai erregioetan bai estatuan, eta begirada berri bat bilatzea, halako moduz non politika horiek egungo sistema sozioekonomikoak eraldatzen lagunduko duten.

Gaitasun zientifiko eta teknologikoak funtsezkoak izanen dira, baina eragile ugariaren arteko lankidetzazko lana ahalbidetuko duten antolamendu gaitasun berriak ere aplikatu beharko dira. Halaber, herritarren arteko gaitasun-banaketa handiagoa lortu beharko da, behar bezala gaituko dituen etorkizuneko erronka ugarietan parte hartzeko ezagutza eta abileziekin.

Beraz, agertoki berri honetan, aztertu beharko dugu zein den Nafarroaren egoera I+G+b arloan eta zer ahalegin egiten duen gure erkidegoak alor garrantzitsu horretan. Azken urteotan ikusi dugu nola Nafarroako sistematikoki murriztu dituen I+G+b arloko inbertsioak, bai eta 2013ko krisiaren ondoko hedapen-urteetan ere. Esaterako, 2009an gure Komunitatea Espainian lehena zen I+G+b-ko inbertsioan –BPGaren % 2,2 inguruko inbertsioa egin zuen–; aldiz, 2017an, hazkunde ekonomiko urtea izanik, Nafarroa bigarren postuan kokatu zen, Euskadiren atzetik, % 1,7 inguruko inbertsioarekin, eta 2018an –hori ere urte ona ekonomiarentzat– beste postu bat egin genuen atzera eta hirugarren postuan kokatu ginen, Madrilen atzetik, BPGaren % 1,68ko inbertsioarekin. Beraz, goraldi eta hazkunde ekonomiko urteetan sistematikoki galdu dugu inbertsioa

I+G+b arloan, eta hori, aurretik dugun erronka ikusirik, oso garesti atera ahal zaigu.

I+G+b arloko inbertsioa murriztu bada ere, are larriagoa da partida horiek izaten ari diren beteazte portzentajeak, nabarmen jaitsi baitira 2009arekin alderatzen baditugu, urte horretan jo baitzuen betetze-mailak partida horiei dagokienez. Berrikuntzara bideratutako aurrekontu-partiden betetze-mailak beharrezkoa egiten du Foru Komunitatean egiten diren deialdiak birplanteatzea, bai eta funtsak emateko moldeak ere, sistema arinago eta eraginkorragoa izan dadin eta gure enpresetara iristen diren laguntzak ahalik eta handienak izan daitezen.

Halaber, ezinbestekoa da departamentuarterko koordinazioa hobetzea eta finantzaketa publikoa duten proiektuen kontrola eta jarraipena bultzatzea, I+G+b-ra bideratutako baliabideak optimizatzeko xedez.

Arestiko guztiak kontuan hartuta, Navarra Sumak honako ebazpen-proposamen hau aurkeztu du, eztabaidatu eta onesteko.

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresen I+G+b finantzatzera bideratutako deialdiez gain (bakarkakoak nahiz lankidetzazkoak) foru erkidegoko zentro teknologikoen oinarrizko ikerkuntza egitera bideratutako oinarrizko deialdiak egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proiektu berezietarako deialdiak gaitu ditzan —orain dauden proiektu estrategikoetarako deialdiez gain—, inpaktu esanguratsua dutenak gure erkidegoko industria ehundurari jauzi teknologiko bat ematen dieten sektore eragileetan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du finantzaketa publikoa duten I+G+b-ko proiektuen kontrola eta jarraipena bultzatzea, Nafarroako enpresek S3an ezarritako Komunitatearen helburu estrategikoekin duten konpromisoa indartzeko.

Iruñean, 2021eko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Mozioa. Horren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen da neurri egokiak har ditzan Tafallan eta Zangoza-Pirinioak eremuan D ereduko Batxilergoa bermatzeko.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita neurri egokiak har ditzan Tafallan eta Zangoza-Pirinioak eremuan D ereduko Batxilergoa bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren elehun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezartzen duenaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, ekainaren 10eko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Berriki jakin dugu Nafarroako hainbat eskualdetako ikastetxe, udal eta ikasleen familien ezinegona, 2021-22 ikasturterako onarpen-prozesuaren araudi berriak berekin ekarriko dituen ondorioengatik. Kontua da D ereduaren kasuan problematika espezifiko bat gertatzen dela, Batxilergoko ikasketak euskaraz egiten jarraitu ahal izateko zenbait eskualdetatik —Tafalla, Zangoza edo Pirinioak (Garralda, Erronkari eta Otsagabia)— kanpora joan behar izatetik datorrena.

DBHko ikasketak euskaraz egiten dituzten Tafallako eta Zangozako ikasleen kasuan (ikastolak izan dira eta dira orain arte hori egiteko izan

duten bide bakarra), Batxilergoko ikasketak sare publikoan jarraitzea erabakitzen zuten ikasleek orain arte aukera zuten zenbait puntu lortzeko Batxilergoa Iturramako Institutuan ikasi ahal izateko, eta bermatuta edukitzen zuten ordutegi-moldaketa eta lineako autobusaren bidezko irisgarritasuna. Ikasle horiek ez dute ikastetxe atxikirik hurbilen dauzkaten ikastetxeetan (Iruñeko eskualdea). Gainera, ez dira agertzen Iruñeko ikastetxeen eragin-eremuetan, eta 0 puntu lortu dituzte, eta haien aurretik Iruñeko ikasle guztiak geratzen dira 4 edo 3 punturekin (nahiz eta azken horiek plaza Batxilergoko beste ikastetxe batean bermatuta izan).

Pirinioetako ikasleei dagokienez, orain arte izena ematen zuten ikastetxeko helbidea jartzeko aukera zuten ikaslearen helbide gisa (ikasle horiek normalean Iruñera joaten dira bizitzera, askotan familia-pisu batera, eta eskubidea izan beharko lukete ikastetxea erabakitzeko bizi diren auzoa kontuan hartuta; eskola-mapa berriaren ondorioz, ordea, institutu bakarra dute atxikita, eta hartan 4 puntu baino ezin izanen dituzte lortu). Berriz ere, ikasle horien eta Iruñeko eskualdeko gainerako ikasleen arteko konparaziozko bidegabekeria gertatzen da. Pirinioetako eskolek salatu dutenez, "neurri hori indarrean jarri zenetik ia 10 ikasturte igaro ondoren, familiei alde aurretik abisatu gabe eta Arartekoak kontrako bestelako gomendiorik eman gabe, foru-agindu soil batek eta Hezkuntzako kontseilariaren ebazpen batek alde batera utzi dute Parlamentuak 2013an erabakitakoa eta bere garaian Arartekoak gomendatu zuena, eta Pirinioetako ikasleak eta haien familiak zaldien hankapean jarri dituzte".

Beste disfuntzio batzuk ere agerian geratu dira; hala nola Arte Batxilergoari dagokiona. Institutu bakarra dago Nafarroa osoan D ereduko Arte Batxilergoa eskaintzen duena: Iturramako Institutua. Aurreko ikasturteetan, Nafarroa osoko ikasleei aukera eman zitzaizen ikastetxearen helbidea ikaslearen helbide gisa ager zedin, ikasle guztiak onarpen-prozesuan aukera berberak izan zitzaizkien. Gauza bera gertatzen da Barañaingo Alaitz Institutuko D ereduko Arte Eszenikoen Batxilergoarekin. Bi kasuetan, Iruñeritik kanpoko ikasleek 0 puntu izanen dituzte, Iruñerriko ikasle batek 3 lortzen dituen bitartean, eta horrek bidega-

bekeria larria eragiten du. Erreferentziako ikastetxe bakarrak izanik, ez luke zentzurik izanen hurbiltasun-irizpidea aplikatzeak, Nafarroako landa-eremuetako ikasleak beti egonen baitira desabantailan nahi duten modalitatean eta ibilbidean ikasi ahal izateko.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Nafarroako ikasle guztiak D ereduko Batxilergoa beren eskualdean ikasteko duten eskubidearekin, eta, ildo horretatik, Hezkuntza Departamentua premiatzen du neurri egokiak har ditzan Tafallan eta Zangoza-Pirinioak eremuan D ereduko Batxilergoa bermatzeko, Hezkuntza Azpiegituren Plana egokituz eta 2022rako aurrekontuen hurrengo aurreproiektuan beharrezko inbertsioak aurreikusiz.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du, eremu horietako ikasleek D ereduko Batxilergoa beren eskualdeko sare publikoan ikasteko duten eskubidea gauzatzen ez den bitartean, ikasle horien salbuespenezko inguruabarrei eta irisgarritasun-beharrei erantzuteko beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak har ditzala. Ikasle horiek aparteko desplazamendua ahalegina egin behar dute euskaraz ikasten jarraitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Iturramako Institutuan bi gela ixteko erabakia zuzentzeko eta landa-eremu horietako ikasleentzat beharrezkoak diren plazak bermatzeko, hala nahi badute eta irisgarritasun-arrazoia alegatzen badituzte.

4. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du, hurbiltasun-irizpidea oinarri hartuta Iruñeritik kanpoko ikasleak ez diskriminatuzeko, Arte Eszenikoen eta Arte Plastikoen Batxilergoko erreferentziako ikastetxeei dagokienez, Nafarroako ikasle guztientzat aukeraberdintasuna bermatuz.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez Nafarroako erakundeak eta gizartea premiatzen dira Kolonbiako protesta baketsuen aurkako errepresioa gaitzets ditzaten.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako erakundeak eta gizartea premiatzen baitira Kolonbiako protesta baketsuen aurkako errepresioa gaitzets ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, 2021eko ekainaren 10eako Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak kezka handiz jaso ditu Kolonbian egun dagoen egoerari buruzko berriak, adierazten baitute neurritz kanpoko errepresioa izan dela Kolonbian modu baketsuan garatutako protesta sozialen aurka eta indar publikoak giza-eskubideen urraketa larriak burutu dituela herrialde osoan zehar mobilizazioak hasi zirenetik.

Nazio Batuen Erakundeak Kolonbian duen Goi-komisarioaren Bulegoak, Giza Eskubideen Batzorde Inter-amerikarrak, Amnistia Internazionalak eta giza-eskubideen aldeko beste erakunde askok beren kezka adierazi dute, txostenak ikusi ondoren, zeinetan egiaztatzen baita su-armak eta kolpeak erabili direla eta atxilotetak izan direla, eta horien ondorioz erailketak, desagerpenak eta sexu-indarkeria gertatu direla.

Herriaren Defentsa Bulegoaren zifra ofizialen arabera, lanuzte nazionalean zehar 42 manifestari hil dira. Halaber, 168 pertsona jo dira desagertutat, eta giza-eskubideen aurka ustez izandako urradurengatik 104 kexa jaso dira ⁽¹⁾. 1.106 lagun atxilotu ditu Polizia Nazionalak 2021eko apirilaren 28tik maiatzaren 25era arteko lanuzte nazionalean, Polizia Nazionalak Cuestión Pública hedabideari emandako zenbatekoari eta atxilotutako pertsonen zerrendari jarraituz, 110013109043-2021-0118-00 tutoretza-epaiaren barruan. ⁽²⁾

Halaber, kezkarri zaizkigu kazetarien aurka erasoei buruz Temblores eta Indepaz GKEek egindako txostenak, non biltzen diren 195 eraso fisiko, atxiloteta arbitrarioak eta kazataritzako materialaren suntsiketa indar publikoaren aldetik. Era berean, giza-eskubideen defentsako 95 pertsonen erasoak pairatu dituzte giza-eskubideen urraketen biktimei laguntza ematen zietenean, are Nazio Batuen giza-eskubideen ordezkari bat ere, bere eginkizuna betetzen ari zenean; gertatzen hori entitateak berak helarazi zuen Twitter sare sozialaren bidez, maiatzaren 3an. Mezu horretan Nazio Batuen Erakundearen ordezkariak azaldu zuen mehatuxak eta erasoak jasan zituztela, bai eta tiroak ere Kolonbiako poliziaren aldetik, ordezkarietako inongo kide jo ez bazuten ere ⁽³⁾.

Maiatzaren 25ean, Giza Eskubideen Batzorde Inter-amerikarrak bilera telematikoa egin zuen Herriaren Defentsa Bulegoarekin "aztertze aldera giza-eskubideen egoera, manifestazioen testuinguruan. Une horretan, Batzordeak berretsi zuen bere lan-bisitaren garrantzia, ikusita giza-eskubideen urraketa batzuei buruzko informazioa (CIDH - IACHR, Twitter @CIDH, 22:53 - 26 may.21). Kolonbiako Gobernuak uko egin dio Giza Eskubideen Batzorde Inter-amerikarra -kontinente amerikarrean giza-eskubideen sustapenez eta babesaz arduratzen den erakunde- bisitan hartzeari.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak erakunde guztiak eta Nafarroako gizartea premiatzen ditu gaitzets dezaten apirilaren 28tik, muturreko indarkeriaren testuinguruan, Kolonbian gertatzen ari den protes-

ta baketsuen errepresioa, eta manifestarien giza eskubideen urraketak zigorrik gabe gera ez daitezzen, eta azkar eta egoki iker daitezzen, xede horretarako behar diren mekanismo eta tresnekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Kolonbiako Gobernuia premiatzen du, lehentasunez has dadin indarkeria deseskalatzen eta hiriak desmilitarizatzen eta berehalako neurriak har ditzan deitutako protesta-egunetan bilera baketsuen eskubidea eta manifestarien osotasun fisikoa eta psikologikoa bermatzeko eta errazteko, neurri horiek giza eskubideen nazioarteko estandarretan ezarrita baitaude.

3. Nafarroako Parlamentuak nazioarteko komunitatea premiatzen du, egiazta dezan behar diren neurriak hartzen ote diren giza eskubideen defendatzaileen protesten ziurtasuneko arreta bermatzeko, bai eta kazetarien eskubidea ere, adierazpen askatasuna gauzatzekoa gunea eta maila ezberdinetako elkarrizketa- eta negoziazio-eskenatoki batetik, protesta horien jatorrian metatutako arazoei ekite aldera. Elkarrizketa-prozesu itundua, irekia eta plurala, mobilizazioak bultzatzen dituzten sektore, erakunde eta lurraldeen gai eta eskaeretan oinarritua.

4. Nafarroako Parlamentuak erakunde guztiak eta Nafarroako gizarteia premiatzen ditu Kolonbiako herritarrei lagundu diezaien Nafarroan mobilizatzen beren herriaren gizarte-eskubideen alde, protesten kriminalizazioaren ondorioak pairatu dituzten eta pairatzen dituzten familia eta pertsona guztiei elkartasuna adieraziz, biktimentzako justiziaren alde eta giza eskubideen urraketak berriz ez gertatzeko bermeen alde, Lanuzte Nazionalaren esparruan eta Kolonbiako Estatuaren eta FARCen gerrillaren artean sinatutako bake-akordioak betearaziz.

Foru parlamentariak: Arantza Biurrun Urpegui, Blanca Regúlez Álvarez, Bakartxo Ruiz Jaso, Ainhoa Aznárez Igarza, María Luisa De Simón Caballero

(1) <https://www.rtve.es/noticias/20210512/colombia-defensoria-pueblo-eleva-cuarenta-dos-victimas-mortales/2089610.shtml>

(2) <https://cuestionpublica.com/explora-lista-capturados-en-el-pais-paro-nacional/>

(3) <https://www.larepublica.co/economia/ONU-denuncia-amenazas-y-agresiones-contra-mision-de-derechos-humanos-en-cali-3163987>

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hilekoaren pobrezia buruzko azterlan espezifiko bat egin dezan.

NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hilekoaren pobrezia buruzko azterlan espezifiko bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Maiatzaren 28an, Emakumeen Osasunaren aldeko Nazioarteko Ekintza Eguna ospatzen da. Egun hori 1987ko maiatzaren 28an ezarri zuen Sexu eta Ugalketa Eskubideen aldeko Emakumeen Munduko Sareak, emakumeengan eragina duten gaixotasun- eta heriotza-kausa anitzei helteko oroigarri gisa.

Emakumeen osasunak zerikusi handia du haien egoera ekonomikoarekin eta, are gehiago, pandemia-egoera batean, non haien ekonomiatik eta diru-sarreretatik asko oso murriztuta baitaude eta nekez egin baitiezaiekete aurre gastu arruntei; besteak beste, hilekoaren pobrezia deiturikoa sortzen ari diren emakumeen higienarako produktu guztiei.

Zer da hilekoaren pobrezia? Honela definitzen da: hileko odol-galera jasotzeko produktu egokirik ez izatea, xaboi eta ur edangarririk ez izatea, eta garbitzeko toki seguru eta saneaturik ez izatea. Gainera, hilerokoa biltzen duen tabua, mito fal-

tsuak eta estigma gehitzen dira, eta horrek zaildu egiten du arazo horrek premia-izaera izan dezan.

Hilekoa izatea, gaur egun, barru-barrukotzat, pribatutzat edo, gehienez ere, “emakumeen kontutzat” hartzen da. Alabaina soziala, kulturala eta politikoa da. Eta esparru politikoan jarri nahi dugu fokua; izan ere, sistema kapitalista eta neoliberalak pertsonaren izaera produktiboa baino ez du kontuan hartzen, eta ez du fokua jartzen haren izaeran eta beharizan fisiologikoetan, eta alde batera uzten du hilekoa eta hari eman behar dizkiogun zainketak bezain naturala den zerbait. Hilekoaren higienarako produktuak premia biziko produktuak dira gure lurraldeko milioika pertsona hilekodunentzat, eta, hala ere, ez dira halakotzat hartzen. Egoera horrek, desinformazioarekin, heziketarik ezarekin eta hilekoaren inguruan sortutako mitoekin batera, hilekoaren pobrezia zabalera eragiten du.

Bizi garen une honetan, COVID-19aren krisiak markatuta, non pobrezia atalasearen azpitik bizi diren pertsonen kopurua handitzen ari baita, eta familia asko diru-sarrerak jasotzeari uzten ari baitira eta zailtasun larriak baitituzte oinarrizko premiak betetzeko, eta, hilekoaren pobrezian ere jarri behar dugu arreta. Izan ere, arazo hori areagotu egin da pandemiaren ondorioz, ez baita ziurtatzen hilekorako higieneko produktuak premia handiena duten pertsonen artean banatuko direnik, produktu horiek eskuratzeko oinarrizko beharra ikusezin bihurtu delako.

Ez da onargarria, gure lurraldean pobrezia hori egonik, hilekoari buruzko hezkuntza azpimarratzen duen politikarik ez egotea, hilekorako higieneko produktuak doan eskuratzeko errazten duenik. Edo, gutxienez, produktu horiek premia biziko produktutzat hartzea, eta, beraz, aplikatzen zaien BEZa murriztea, zeren eta produktu horiek eskuratzeko ezintasunak zuzeneko eragina baitu hilekoa dutenen eguneroko bizitzan.

Geurea autonomia aurreratu eta berritzailetzat jotzen dugunez, gure erantzukizuna izan beharko litzateke hilekoaren pobrezia hori arintzea, ikastetxe, erakunde edo espazio komun guztietan hilekorako konpresak, tanpoiak edo kopak izateko aukera bermatuz, bai eta hilerokoarekin lotutako gaietan herritarrak sentsibilizatzea eta prestatzea ere.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, INAI-NABIrekin, arlo horretako adituekin eta gainerako gizarte-eragileekin lankidetzan, hilekoaren pobrezia buruzko azterlan espezifiko bat egin dezan, gehienez ere sei hilabeteko epean, diagnostikoa egiteko eta garatu beharreko politika publikoen gomendioak biltzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako gainerako administrazioekin eta gaian esperientzia duten gizarte-erakundeekin lankidetzan, estrategia integral bat garatzeko konpromisoa har dezan, hilekorako higiena bermatzeko eta sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzean pobrezia eta desberdintasuna sortzen duten egiturazko faktoreak desagerrarazteko, betiere estrategia horretan jasoz osasuna, sexu-hezkuntza eta sexu- eta ugalketa-eskubideak sustatzeko ekintza-ildoak. Estrategia horrek bermatuko du estrategia garatzeko eta ezartzeko behar diren baliabideak eta gobernantza esleitzea, bai eta ebaluaziorako eta

herritarrek parte hartzeko mekanismoak sartzea ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, susta dezan ikaste-eteetan, zentro komunitarioetan, emakumeen etxeetan eta administrazio publikoko guneeetan hilekorako higieneko produktuen doako banatzaileak jarri eta hornitzea, produktu horiek behar dituen emakume edo pertsona hilekodun orori doan eskuratzen zaizkiela bermatzeko, eta, gainera, produktu horien erabilera berma dezan herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina baten bitartez.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere eskumenen esparruan babes ditzan hilekorako higieneko produktuen kostua murriztea edo doan eskuratzea dakarten estatu-ekimen guztiak, produktu horiei bai BEZ supermurriztua bai doakotasun osoa aplikatzen lagunduz.

Foru parlamentariak: Ainhoa Aznárez Igarza eta María Luisa De Simón Caballero

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

II. eranskina aldatzea

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2021eko otsailaren 10eko Ebazpenaren bitartez, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zen.

Deialdia argitaratu zen 2021eko 45. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 26koan, eta, 2021eko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, otsailaren 26koan.

Kontuen Ganberako lehendakariaren 2021eko apirilaren 13ko Ebazpenaren bidez, deialdian onartutako eta baztertutakoen izangaien behin betiko zerrenda onetsi zen.

Gero, Kontuen Ganberako lehendakariaren 2021eko apirilaren 14ko Ebazpenaren bidez, Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailera Nagusiaren NIA-ES-SP arau teknikoak erakunde horretan fiskalizazio lanak egiteko erreferentzia gisa sartu ziren 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera. Izan ere, arau horien bidez Sektore Publikoko Auditoretza Arauak Nazioarteko Auditoretza Arauetara egokitu dira. Orobat, fiskalizaziorako gida praktikoa batzuen kodifikazioa (GPF-OCEX) aldatu da, eta gida horietako batzuk baliogabetu dira, eta beste batzuk eguneratu.

Fiskalizaziorako gida praktikoetan (GPF-OCEX) egindako aldaketak deialdiaren II. eranskineko lau gairi eragiten die. Kasu batzuetan, eranskinean ageri den GPF-OCEX kodifikazioa aldatu behar da, eta beste batzuetan, berriz, NIA-ES-SP arau teknikoak beren-beregi aipatu, orain aplikatu beharrekoa da-eta.

Ikusi da Kontuen Ganberako idazkari nagusiak egindako proposamena auditoretzako teknikarien hiru lanposturen deialdiaren II. eranskineko lau gairen enuntziatua aldatzeko. Kontuen Ganberako langileen batzordeari horren berri eman zaio eta haren iritzia entzun da. Horiek guztiak horrela,

EBAZTEN DU:

Lehena. Enuntziatua aldatzea Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdiko II. eranskineko 54., 56., 58. eta 59. gaiei. Honela idatzita geratzen dira:

54. gaia. Auditoretza planifikatzea: fiskalizaziorako GPF-OCEX 1301 gida praktikoa.

56. gaia. Auditoretzako laginketa: NIA-ES-SP 1530. Auditoriaren ebidentzia: NIA-ES-SP 1500.

58. gaia. Inportantzia erlatiboa finantza-auditoretzetan eta betetze-mailaren auditoretzetan. GPF OCEX 1321 eta 4320 gidak.

59. gaia. Auditoretzako txostenak. Ohar orokorrak eta edukia. Iritzi motak. GPF OCEX 1730 eta 4000 gidak.

Bigarrena. Agintzea deialdi hau argitara dadila Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian.

Hirugarrena. Ebazpen hau igortzea Kontuen Ganberako idazkari nagusiari eta langileen batzordeari.

Laugarrena. Ebazpen honen kontra, errekurtsio hauetako bat aurkeztzen ahal da:

a) Aukerako berraztertze errekurtsioa, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 26an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga.

